

## #ZINEQUIZ ZOZKETA TWITTERREN

### Parte-hartzearen oinarriak

#### PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

- 18 urtetik gorakoek parte har dezakete.
- Zozketan parte hartzeko, EZAE elkartearen Twitter kontua jarraitu beharko du parte-hartzaileak eta proposatutako edukia retuiteatu.

#### ZOZKETAK

- Sari bikoitza zozketatuko da astero: zinemarako bi sarrera sarituak aukeratzen duen EZAE elkartearen aretoan euskal edo europar film bakarra ikusteko ([link](#) honetan kontsulta ditzakezu aretoak).
- Saria eskuratu ahal izateko, jendea zozketan parte hartzera animatzen duen EZAEren tweeka retuiteatu beharko du parte-hartzaileak.
- Lehiaketa ekainaren 30era arte egongo da zabalik.
- Zozketa ostiral goizean burutuko da. Irabazlea eta ordezkoa zoriz aukeratuko dira EZAEren edukia retuiteatu duten jarraitzaileen artean.
- Irabazleak EZAEren areto bat aukeratu beharko du bere sariaz gozatzeko. Behin zinema aukeratuta, bi sarrerak doan atera ahal izateko agiria helaraziko diogu irabazleari. Sarrerak aukeratutako aretoan eta saio bakarrean erabili ahal izango dira, bonoa jaso eta hilabete bateko epean.
- Parte hartzaile bakoitzak behin besterik ezingo du saritua izan EZAEk ekaina eta iraila bitartean egindako zozketetan.

#### IRABAZLEEN KOMUNIKAZIOA

- Zozketa egin eta gero, irabazleekin jarriko gara harremanetan posta elektronikoz edo telefonoz.
- 15 eguneko epean erantzuten ez duenari txanda pasako zaio eta ordezkoarengana joko dugu; horrek ere erantzungo ez balu, 15 egunen buruan, saria eman gabe geratuko litzateke.

## **ADOSTASUNA**

Parte hartzearekin batera, aurrez adierazitako baldintzak onartzen ditu partaideak.

## **IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA**

Izaera pertsonaleko datuen babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Legearen 5. artikuluan adierazitakoa betez, jakinarazten dugu parte-hartzailearen datu pertsonalak EZAE elkartearen jabetzako fitxategi batean gordeko direla, zozketako partaideen datuak kudeatzeko eta aurrerantzean EZAEn informazioa bidaltzeko helburuarekin. Partaideei jakinarazten diegu euren datuak ez dizkiegula hirugarren enpresei emango, eta datu horiek inori utzi aurretik jabeen oniritzia eskatuko genukeela aldez aurretik. Legearen arabera, norbere datuak ikusteko, zuzentzeko edota baliogabetzeko aukera dute parte-hartzaileek, eta horretarako gurekin jar daitezke harremanetan [info@ezae.eus](mailto:info@ezae.eus) emailera idatziz.